

## Axularren argia eta itzala

Axular, Urdazuriko saroi-etxe batean sortua, Saran luzaro apezlanetan ibili zan. Erri auek eta beste bi —Ainhoa eta Zugarramurdi— *Uhertzi* izeneko ibaiaren goialdean dire.

Lurralde sakona da toki au, Larrun, Ibantelly, Atxuri, Mailarreta, Gorospil, Urdazubietan eta Suhamendy izeneko mendiak itzul-inguru dituela. Antziña, *Xareta* omentzuen izena. Larrez, garadiz, zuaitzez edo basoz eta landetako landare eta uztaz jantzia geientsu. Eta an betizuak (leen) goietan, pottokak, ardiak, auntsak, pixtiak eta txoriak aunitz.

Txoko artan daude, banakatuak, lau errien karrikak, eta tarteetan, anemka eta sarri-sarri, baserri-etxe txuriak ugari.

Lurralde ontan zebillen Axular. *Guero* liburua idaztean, begietan zeukan noski alderdi au, aurtzarotik, bere etxe, erri eta lagunekin, ezagun.

Axularren berri era bitan datorkigu: bere idazkien bidez eta bere izen eta oroipenari itsasiak dabiltzan ipuien bidez. Ikus zagun<sup>1</sup>.

### I

Geroaz eta oraingoz Axularrek darabiltzkien gogoetak zenbait euskarri eta irozkaitan atxiki eta tinkatzen ditu.

Izan ere, inguruan eta bere barnean sumatzen du euskarri eta zutabe orietako bat: gizakia gogorki zamaten duen buruauste izugarri au, alegia: gelditur gabeko bizikera, beti urriñean amilka, ondogabeko osinera doiana.

Ala dio: «Çucia iratchequiric dagoenean, bici da, eta orduan hiltcen da, ceren orduan ahitcen da... Hala bada gu ere bicitceaz hiltcen gara» (63<sup>a</sup> orrialdean). Ona emen biziak eta eriotzak adierazten diguten buruaustea eta ebazkizuna.

(1) 1956<sup>a</sup> urteko Buruñelean, Paris'go Sorbonan egin nuen itzaldi batean gai onezaz luzaro mintza nintzan. Itzaldi aren laburgo bat euskeraz geroago —1957<sup>a</sup> Dagonillean— GURE HERRIA aldizkarian agertu zan. Aren aldaki bat, geiagotua, da oraingo jardunaldi au.

## BARANDIARAN'GO JOXEMIEL

«Ez cara deus ere» dio 60<sup>n</sup> orrialdean. *Ez gera gure baitan* entzun oi degu sarritan, gure izaera eta gure bizia bestegandik —guri eragiten digun bategandik— degula esan nairik.

Ba-degu adimena, ba-degu autamena: noren erabakiz sortuak ote gera **makina** edo eraikin utsa dirudien ikusbira zabal ontan? Ara or galde nagusi bat, ebazkizun bat.

Gu gera, lurbiran diren bizidunen artean, aurrez geroa sumatzen degunak, lendanik eriotza ikusten degunak eta etorkizunari begira gure biziko egitama eraentzen dakigunak. Ikuskari orrek gutako bakoitzari, bere bizikera edo ibilaldirako bidea eskaintzen dio eta bere nortasunean indartzeko eta bereizteko bidean jartzen du.

Gizonki jokatzea edo gizabidean ibiltzea ez da beraz nunbaitetik artu degun bizi-indarrari «dabillela» esan eta artan uztea; bakoitza bere ezaupidez elburu zuur baten ondoren *gardun* eta *aritzea* baiño.

Gizakiak sortzetik du jomuga edo elburu ori izendatua, naizta ez den ortara indarrez beartua. Ez du bada ori berak autatua ez begizatua; izaera ere ezpaitu berak autatua ez asmatua; bai ordea berari eragiten dion batek emana: Jainkoak, alegia. Or da gure asera eta jomuga.

Orregaitik Axularrek leenengotik adierazten digu zenbaterainoko erokeria den gure jardueraren zuzentzeari geroko uztea. Gure egikera eta beraren bideratzea gure gain bai degu —erantzukizun aundia benetan—, gure etorkizunaren jabe geu gera. Bidezko degu beraz gure egintza eta bizitza guztia buruz eta zuzenki eraentzea.

Ori sumatu zuten, naizta ganduz inguratua edo belundua, gure leen-aurrekoak. Kristok ordea gero, Aitarenean bere bizitzaren eta irakas-tearen bidez, argi eta zeatzki gauza bera agertu zigun. Orregaitik degu Kristo gure eredu eta ikusmuga, gogoarentzat egi, urratsentzat bide.

Axularrek agertzen digu ondoren gizakiak, bere ibilaldian, zer beaztopo, erorbide eta etsai izan oi dituen: mundua, debrua eta adagia, alegia. Auek besteentzen gaituzte, geren baitatik ateratzen eta nortasuna galerazten.

Ondoren oztopo auek garaitzeko neurriak eta bideak erakusten dizkigu.

## II

Axularren liburua, euskerari buruz, irakaslan ederra degu. Gaiñera ordea bere lurralde eta garaiko bizikerazaz gai eta berri asko erakusten digu.

Maiz aipatzen ditu orduko, bereziki bere inguruko, gizakien izakerak. Izendatzen ditu, *batz* ere, nekazariak, artzaiak, arrantzaleak, eskulangileak,

aitonen semeak, beartsuak eta eskaleak. Baita mairuerrietako mairu beltzak ere.

Ikus dezagun laburki zer dion orduko bizikerai buruz eta aipa ditzagun leen-aldiko jantziz eta mamiz zamaturik eldu zaizkigun zenbait itz eta esaunda.

\*  
\*   \*  
\*

Ara zer dion artzen ditugun azkurriezaz.

«Janhariaren iaquia barura da eta gosea» (GUERO, 492<sup>a</sup> or.).

Ez ditu onartzen «ian-edanean ieri dabilçanac» (409).

Ez du ontzat artzen, bainan aitortzen, atsegin dela «bazcari onagatic, afari onaren ez uztea» (480).

Urdeazaz ba-ditu itz auek: «urdeac...nola ezpaitu deus ere on den gauçaric, bere urdaia baicen, ez lumaric, ez larruric» (432-433). Orai ez luke iñork esango Saran urdeazaz orrelakorik; bainan bai beste au: *urdeak deusik ez du galtzekorik: urdaiak, ezurrak eta ertziak*.

«Haraguia berri deino, gacitcen da (89). Egun Saran esaten da: *xingarra, berria eztalarik, ezta gazitzen*.

Zenbait gaitzezaz ara zer dion: «çurari pipia, oihalari cerrena, urdaiari cedula eta haraguiari harra» (340).

«Ançutcen da haraguia» dio, adagikerirako zainak apaltzen direla adierazteko (386).

«Bitina, ahuntz umea, gazte deino, on da iateco, samur da, uxter da sasoa da; ordea galtcen du adinac» (97).

Inpernuan izanen da bat penatua «cenbait ianhari urdinduz, eta edari çurminduz» (588-589).

Eztiazaz esaten du: «Erleac, hain gauça ttipiac, eta flacoac, bethatcen du mundua, eztiz eztitceco, eta ezcoz arguitceco» (35). «Eztia darion berasca» ere aipa du (355). Orai ordea Saran ez da esaten «beraska»; *Orrazia edo erle-orrazia baiño*.

Edariazaz dio: «Eman batcerauen, harri-muguer batetariç atheraric, ithur-ur fresco bat» (511). Saran ez da *itur-ur fresko* esaten, *iturrotx* baiño. Ezta *harrimuger* ere; *suarri*, bai.

Edaria, ordea, geiegian, kaltegarri dala adierazten digu: «Bertcerentçat ere itsusi da sobera edatea, baina emaztentçat are itsusiago» (406).

Gabezian dagonazaz esaten digu: «eztaqui othuruntça on baten berri-ric» (224). «Othuruntza» da eguneko janaldirik aundiñen izena: gosari,

## BARANDIARAN'GO JOXEMIEL

bazkari eta afari othuruntzak dire oraingo mintzaeran, Sarakoan beintzat. Beste janaldiak (krakada eta amaiketakoa) ez dire othuruntzak.

\*  
\*   \*

Ara zer dion jantzi edo soñekoezaz.

Beartsua, Axularrek dionez, «biluz da; orthuz da; eztu aldatceco athorric, eta ez etçateco oheric» (224).

Saran «orthuz» esaten da orain ere; baita «ortotsik» ere, zangotakorik gabe bat dabillega adierazteko. Orain 80 urte, ortotsik ibiltzea lan txikietan, etxean naiz kanpoan, oitura zan, batez ere lurra bustirik zegoalarik. «Athorra» azpiko jantzia da. Leku batzuetan ordea aurren azpi-jantzia izen orrezaz adierazten dute. «Ohea» lau oiñen gaiñean da; lurrean zabalik (artzaïen txaboletan) dagona «etzauntza» da. Ebangelioko aberatsazaz ala dio: «beztitcen cela ongui eta othuruntçatcen hobequi» (233).

«Oihalaren parte bat, neurtcen eta ordenatcen dugu capataco, bertce parte bat iacataco, eta gaiñeracoa behar diren bertce soñecoen eguiteco» (66). «Iaka», gaintek erabiltzen den jantzia da, aurrena bereziki. Orain askok «tabliera» deitzen diote.

Beste jazkera batzuek aipa ditu esanaz: «Nescato bat, copetaren edertceco cherloac goiti thiraturic, penatcen cela: eta guerriaren ere lerdentceac, bortitzqui hersten cela» (516).

«Arropa berriac bazcotçat eraguin nahi dituenac, aiticinetic behar du prestatcen hasi» (200). Orain ere Saran Bazkotan soñeko berriai asera emateko oitura ba-da. Baita Erramu-egunean ere, eta jantzi berriak debruari begi bat ateratzen diola esan oi da.

«Erregue vezti bedi oihalic hoberenaz, aitoren semea erdicoaz, eta neccaçalea arronteraz» (421). Oiala txuria izaten da, leenago eunaz egindako jantziak bai ziren emen. Saran ez da esaten orain «arronteraz»; «arrunte-naz», bai.

«Eztu deus usnarazten usain onez betheric ibiltceac, eta are gutiago berari dagocan baiño soineco arropa ederragoac erabiltceac» (418).

«Ezta musquetaz, balsamoz, eta halaco bertce usain onez usainztaturic ibili behar» (416). Orain ezta «usainztaturic» esaten, bainan bai «usaindurik». «Balsamo, ambar, musqueta, eta halaco bertce usain onac ienden enginatceco» (417).

«Çapata bat deçunean, neurri, iustu, doi; ecin paira deçaqueçu barrenan den legarric ttipiena» (425). Gaur ordea beste era ontan esaten da:

«Zapata bat duzunean neurri justuan, doi-doia; ezin paira dezakezu barnian den legarrrik ttikiena-re».

«Çapatac iauntci berrian, hersten du, min eguiten du, baina appur bat erabiliz gero, moldatcen da, oinaren neurrira eta orccoiera ethortcen da» (490).

\*  
\*   \*  
\*

Etxe eta bizitzaz ba-ditu esaera batzuek.

«Badu gure Guero hunec hemen ere bere etchalecua, eta ostatua» (464).

«Animaliec... bere etchea eta etçauntçac» nun dituzten adierazten digu (24). *Etzauntza*, abereak eta iiziak etzaten diren leku eta azpi biguiña da. Baita artzaiak eta ikazkiñak beren etxolan iratzez edo iñarrez egiten duten oatzea ere. Abereenari toki batzuetan *azpi* eta *ei* deitu oi diote.

«Nagua... bere beccatuen chistera eta etçauntçan baratcen da» (46). *Xistera* oolez egindako kaiola bat da: zerriak gurdian eramateko. Ba-ditu beste bi izen ere: *zerriuntzi* eta *zerrickortxel*. Iñoiz ordea lau ertzeko kutxa da, urritz edo beste zuaitz-adarrez esiaren antzera egiña. Orrela eginiko esi txabal bati ere *xistera* esaten diote: arri batzuek gaiñean dituela, idiak erabiltzen dute landetan lurra berdintzen eta zeatzen. Orain *xistera* gutxi dire Saran; asko ordea Zugarramurdin, baiñan emen *arralda* deitzen diote.

Etxean ikusten ditu «abeac, sostenguac» (365); baita «ithaiçurac eta kheac» ere.

Etxeak ba-du «athea bere erroetan eta uhaletan ongui iarria» (45). *Erroa* burdinezko iltze bat da bikundan: kunda bat atéalboan sartzen da; bestea ualean edo atea iltzaturik daukan burdin-xabalaren begian. Orain Saran ez da «uhala» esaten, «partadura» baiño.

Aipa ditu atea eta pausuak esanaz: «Athaca hertsian eta pausa gaitcean iragan behar baituçu». Saran ez da orain «athaka» esaten; *ateka*, bai. Barrutietan edo esiz inguruturik dauden lurren sarlekuei deitu oi zaie *atekak*, ziriz egiñak direlarik; *pausu* berriz, arrizko sarlekuei. Ibaian, alde batetik bestera iragateko jartzen diren armallai ere *pausu* deitu oi zaie.

«Cucinaco eta succaldeco eltce plateren artean» dabilena aipa du 87<sup>n</sup> or. Orain *kuzina* janariak moldatzeko egiten diren lanai esaten diegu. *Kuzina egin* eta *jatekoa egin* berdinak dire. *Eltze* lurrezko ontziari —sutan, jatekoa egosten erabiltzen denari— deitzen zaio. Urraidaz edo burdinez egiña ba-da, *tupina* du izena. Saran ez da *platera* esaten, *azieta* baiño.

Illatiak onela aipa ditu: «Egur heceac eguiten du gar, eta eguiten du nigar: sua datcheca, eta ura dario» (501).

Baita sua ere: «Suco inharra, suco chinda, bera ere bere buruz fite irainguitcen da» (369). *Chinda* eta *iraunquitcen* ez dire ezagunak orain Sara-aldean.

Sukaldeko tresna da zuzia ere. Aipa du Axularrek, esanaz: «Çucia irat-chequiric dagoenean, bici da, eta orduan hiltcen da, ceren orduan ahitcen da» (63). Zuzia ez da orain ezaguna Saran. *Iratxeiki* berriz, oraingo min-tzaeran, burdin bat besteari eranstea da. *Abitu* ere ez da ezaguna; bere tokian *bigatu* esaten da edo *finitu*.

Labea aipa du, naizta inpernukoa: «Gaixtoac infernuco labean» (572). Oraindik ba-dire labeak Sarako etxeetan. Leenago gari-opillak eta arto-opillak erretzeko erabiltzen zituzten; baita arta-alea edo artaburuak igartzeko eta sagarrak erretzeko ere. Azkeneko gerratea ezkerro labeak utsik eta alperrik daude geienean.

Etxean ba-dire «bihiteguiac, ardandeguiac, sotoac eta gambarac» (75). *Bihitegia* esaten da oraindik; baiñan bai *greniera* ere. *Ardandegia* ez da orain ezaguna; bere tokian *xaia* entzun degu. *Sotoa* ere ez orain ezaguna; baiñan asko aipa oi dute bertsoetan:

*Erriko zahar batzuk*  
*Sotora etorritz.*  
*Han idukitzen naute*  
*Lebertua irriz.*  
*Konkorrak kanta,*  
*Maingua dantza,*  
*Oiuka elkorra*  
*Biba zaharrak eta*  
*Sotoko oporra.*

Etxearen garbiketa ere aipa digu. «Isatsaz maiz iragaiten den etchea, erraz baita garbitcen, ceren harc sits-mits, eta liquitsqueria guti baitu: baina urthean behin baicen garbitcen eztena, neque baita, eta gaitz, ceren harc herrautsa, eta amaraua lodi baitu» (540). *Sits-mits*, *likitskeri* eta *amarau* ez dire orain ezagunak Saran.

Sukaldean suarria tresna bearrezkoa zen lengo mendetan. Axularrek dio «harriac harriaren ioitea bietaric suaren piztea» dela (292). Oraindik esaten da: *aski jotzeaikin harriak ateratzeute inbarra*.

Asarre direnezaz esaten du: «Harri muguerraren pare dira barrenean dute sua, asco dute uquitcea» (290). Orain 80 urte, suarria erabili oi zan sua pizteko, labana baten burdinarekin joaz. Ortik ateratzen zen txinpartak jotzen zuan kardua edo drunda (sutan erabilitako oial-puska) eta lotzen zion sua.

Urontzia aipa digu esanaz: «beira bat ur» (406).

Orraziazaz ala dio: «Gutitan orraztatcen denac, lehenbico orratzta al-dian, orracea nequez iragaiten du, min hartcen du. Ceren illeac nahasiac eta içurtuac baitaude» (547).

\*  
\*   \*  
\*

Nekazaritzaz esaunda batzuek ba-ditu Axularrek bere liburuan.

Bere inguruan ikusten zituen zenbait lan: «lur-lantcea, appointcea, laboratcea» (22). Orrialde batean dio: «Neccaçaleric, eta laborariric baicen ezten herria, dela herriric hoberena» (377). Oraingo mintzaeran ez da Saran esaten *nekazale*.

Lurra bear da irauli. Ala dio: «Hasuiña edireiten da alfer-naguiaren landan eta alhorrean» (41). Saran orai *landa* esaten da; ez ordea *alborra*.

Hasuiñak bezela aipa ditu elorriak eta belar gaiztoak; baita «mahastitic edo ardantcetic» iragaiten ikusi dituen «hesiac, hertsteguiac eta harmorac ere» (40). Emen *harmora* izenak arresia edo orma esan nai du; baiñan Euskalerriko beste toki batzuetan *armura* edo *harmura* edota *almora* arripilla bat da (Araban, batik-bait), baita trikuarria ere Araban, Ataunen («Urrezuloko armura») eta agian Urbasa mendian («Armorkora aundia, Armorkora txikia»).

415<sup>n</sup> orrialdean auxe dio: «Hobe da, eta beccatu gutiago da, igande egunetan, goldenabarretan eta lur lanetan travaillatcea ecen ez dantçan hari-tcea». *Goldenabarra* lanabes bikoitza da, goldea eta nabarra, alegia; biak batera eta uztarridi batek aurretik eta itzai batek atzetik darabiltzatenean. *Goldenabarra* ez da orain ezaguna Saran. Azkenekoak 1950<sup>80</sup> Uztaillaren 21<sup>n</sup> ikusi nituen Mendiben, ango *Mairietxearen* (trikuarriaren) ondoko soroan: *Teilaria* baserriko gizonak bere idiakin lurra iraultzen zerabiltzan.

«Golde nabarretan, edo golde-picoetan, lur lantcen, eta appointcen, guibelat beha dagoela hari denac, ildoac maccur eguinen du, ezta hura golde-lari on içanen» (468). *Goldepikoa* golde utsa, nabar gabekoa, da.

«Esquiribatcea, pintatcea, iostea, golde nabarren, eta arhen ere hari-tcea, ezpaitira ongui eguiten... aicinerat artez behatcen dela baicen» (468). *Arhea* edo *arrea*, lau lerrotan burdinezko ortzak dituen lanabes bat da, lurra zopizartuaz lantzeko.

«Bihica ereiten çuten, eta escumenca viltcen» (232). Bihika edo bi-korka ereiten dire artoa, lursagarra eta illarra. Ogia berriz aburka edo pur-raran zabaltzen da. Saran ez da esaten *eskumenka*; *eskuak beteka*, bai.

«Belhar gaixto çamac, multçuac, escumenac edo escutarac elcarrequin erratceko viltcea, eta lotcea» (591-592). *Eskumenak* eta *eskutarak*, itz bi Saran erabiltzen ez direnak. Oien lekuan bai *aburra* edo *agurra*.

«Lapitzaren gaiñean ereiten den hacia» (456). Lapitza edo arbela ausarki da Saran. Baita burdinarrria, otarria, gultxurdinarria eta ondar-ar-txabala, eta, an-emenka, arrauka-arri edo kissuarriak ere. Bi arri-motak elkar egiten duten tokietan erori oi da geienetan tximista edo aide gaixtoa.

«Orgaren edo gurdiaaren arroda beçala dira. Gurdi cargatuac badarasa, badirudi bere carga handia ecin iasanez, arrencuratcen dela» (429-430). *Orga* eta *gurdia* ez dire berdiñak: gurdiaaren gupillak beren ardatzarekin dabiltz biraka; orgaren ardatza berriz ez da itzultzen. Gurdirik ez da orain Saran; ba-ziren ordea orain dela 90 urte. 1945<sup>n</sup> urtean eta geroago ere ba-ziren oraindik Azkainen, Urruñan eta Biriatur.

«Lanhablesac, tresnac» (26). Saran ez da orain *lanhabesa* esaten; *tresna*, bai.

«Eztu escu-toquiric, eta ez lotceco guirthaiñic» (153). Saran *eskuleku* esaten da, ez *esku-toki*; *gider*, ez *girtaiñ*. *Girttoin* berriz, gerezi, sagar, udare eta olakoren aleak duten txurtenari deitzen zaio.

«Maquilla borra bat, edo maillu handi bat, escuan duela» (54). *Maki-laborra* esaten zaio oraindik artzaien makilla burukonkordunari.

«Haizcora, zuhaitzaren erroari, kheinatua dagocala» (571). *Keinatu* ez da Saran orain esaten.

«Oihaneco çuhaitzac» (24). *Oihana* basoari esaten zaio, zuaitzak dau-den lurraldeari. Zuaitzik ez bada, deitzen zaio *ialeku*, iratzez jantzia ba-dago; *otaleku*, oteak ba-dire; *sorropil*, belar ba-dago; *larreki*, belardi itxia —esi-tua— ba-da. *Barrendegi* esan oi zaio belarrez eta zuaitzez jantzia dan lurralde esituari. *Baratza* berriz etxe-inguruko lur esituari.

«Eta çama bat eguinic, lothu çuenean» (85). *Zama* esaten zaio belar, egur edo lasto-pilla bat lotua danean.

«Çuhaitça ttipi deino birlandatcen da» (87). Saran *ttiki* esaten da, ez *ttipi*.

«Hec dira chertoac, hec dira landareac eta erroac» (367). *Xerto* beste tokietan *metu* esaten da. Zuaitza edo landara basatia xertatzen edo metutzen da. *Madaria* zuaitz basa edo sertraka mota bat da: *udara* berriz berari esaten zaio xertatua delarik. Ba-dira gerezi baxak, basate edo sagar-baxak, fiku-baxak, zerri-aranak, gaztaina-baxak eta berro-mahatsak. Mendian berez eldu dan landareari *zuaitza* esaten zaio; xertatuari berriz, *arbola*.

«Hunçac inguratcen du çuhaitça, besarcaccen du, edosquitcen du eta azquenean ihartcen du» (360).



«Hazleccua da, eta mindegua. Ceren nola mindeguian birlandatceko landareac sorcen, eta hazten baitira» (409). Saran orain ez da *hazlekua* esaten.

«Ebaquitcen duçunean çuhaitz bat, eta berriz hartaric urt-umeac edo adarrac sorcen direnean» (465). Saran *pikatu* esaten da, ez *ebaki*.

\*  
\*   \*   \*

Abereak, ihiziak eta beren lan eta jokaerak ere maiz aipatzen ditu.

«Idien orgac» (495). Saratarrak *orga* erabiltzen dute, egurra, belarra, iratzea eta beste gauza asko eramateko. Ortarako uztartzen dituzte beren idi edo beiak. Ba-dira Saran orgaegileak.

«Uztarria, biac iasaiten eta eramaten baitute» (494). Uztargileak ba-dira oraindik (1956) Saran; baita beste toki askotan ere Euskalerrian. Murreztura ederrak eta iduri politak (idi-buruen iduriak) egin oi die zenbait erritan.

«Are abre mutuec ere eztute, bere leheneko usatua, edo etsigarri bat bedere içan gabe, lehen içan diren ostatuetic, aintcinat, iragan nahi» (92). *Abre* dira zaldiak, beorrak, pottokak, astoak; *kabala* berriz beiak, idiak eta zezenak Sarainguruko errietan diotenez.

«Çamaria gazte deino hezten da» (87). *Zamaria* esaten da orain ere; baita *beborra* edo *behorkia* ere.

«Han ixtitcen eta guibeletcen gara» (47). «Ixtitceco eta guibeletceco» (126). *Isti*, oraingo mintzaeran, abere bat gibelka ibiltzea da. Atzeratu dedin esaten diogu: *Isti!*; baita *arre* ere.

«Bitiñac beçala» (97). Orain abere auetatik gutxi dira Saran.

«Erran comuna den beçala, otsoak ian baiteçaque ardi contatuetic» (242). Esaunda onek adierazten digu ez dala aski jakitea zenbat ardi ditugun otsoa aldentzeko. Artzaiak ez du esan oi zenbat ardi dituan bere artaldean. Orain Saran ardi geiago da guda-aurrean baiño. Gaztaiarekin, ileakin, bildotsakin ondo irabazten baita. Bestalde, orain ez da otsorik mendietan eta leen baiño errazago da ardiak azten: ez du artzaiak beti ardien ondoren ibilli bearrik.

«Bi chacur gazte, bi orcume ama batenac, eta sabel alde batetacoac» (87). Ez da orain *or-cume* esaten Saran, xakurkume bai. Sabelaldi batekoak ba-dire, deitzen zaie *bi-bitxiak* edo *biitxiak*.

Erleac nehor autsiquitcen duenean, autsiquitcenago du bere burua, ceren bere estena eta bicia han utzten baititu» (332). Saran orain *asiki* esaten

da, ez *autsiki*. Esaera ba-da erlea eta sugea, bati asiki ezker, gero iltzen dirrela.

«Nola duten bere erreguea» (35). Erleen buruzagi edo aitzindariari orain ere *erregea* deitzen zaio; baiñan maizago *ainyeria*. Aidean dabilzten erleak erletegira bilerazteko deia egiten zaie asanaz: *Maria, bil, bil bil*.

Izi guztiak dute beren jazkera: «Animaliac larruz eta illez; hegaztinac lumaz; arrainac ezcataz; eta çuhaitzac açalez» (24).

\*  
\*   \*  
\*

Mintzo da iiztari, arrantzale, zurgin eta arotzai buruz ere.

«Ihiztarien artetic iragaiten da» (342). *Ihizia*, egaztina edo egaztia da Sarako mintzaeran. Beste toki batzuetan edozein animala basari deitzen diote *ihizia* edo *iizia*.

«Hura da, hurran hurran erran comuna den beçala, usoac ioan sareac heda». Oraindic ere ba-da Saran sareakin usoen eiza egiteko oikundea. Urte oro, Sanmigel egunetik Samartinak arte, *Usategieta* izeneko mendian eizmota ori egin oi du saratar eiztari-sail batek.

«Ustez ecen ihicia sarean çuen» (388).

«Hec hedatcen, eta paratcen dituzten artez, sareç, lachioz, eta segadez» (341). *Artea*, zumabiurrez edo lokarriz egindako biizto bat da, iiztiak ibiltzen diren sasi-zulo baten neurrian, bertan jarria. *Sarea*, ari lodiz edo lokarriz egiñiko eta tarte aundixkoak dituen esi zabal bat da: usoak erraz sarrerazi legizkean lepo batean, zuaitz batetik besteraño zabaldurik jartzen dute. Usoak eldu direlarik, lokar-esia erortzen da eta azpian artzen ditu egaztiak. *Laxio, lakio* edo lokar-biiztoa, aribiur luze baten buruan egiñiko biizto bat da: urrundik iizi edo abere bati botatzen zaio eta burutik lepora sartu, eta ala, beste muturretik soka teinkatuaz, iizia menderatu. *Segada*, txoriak eskuratzeko tresna da: saats-adarrezko arranbela eta bere mutur batetik bestera zotz bat edo aribiur bat lotua duena; arranbela goitik lau edo bost zurda-biizto dilindan dituela eta aria edo zotza beetik duela, eta guztia zuaitz baten adarretik zintzilika: txori bat etortzen da, jartzen da arian, erraz sartzen du burua biizto batean eta lotua bertan gelditzen da.

«Indaitçue habailla batçuc» (89). Orain ez da ikusten abailarik; baiñan leengo mendeetan aipatua zen. Direla 80 urte, aurrek erabili oi zituzten jostailu bezala. Euskal-esaunda eta ipuietan oso ezaguna degu abaila.

«Untciac... berequin baitarama» (62). *Untzia* edo *ontzia* (urekoa) lagun asko edo gauza asko eramateko egina da. *Barkua* berriz arrantzan erabiltzen duten aundiena; *txalupa*, txikietakoa.

## AXULARREN ARGIA ETA ITZALA

«Chaluparic edo batelic gabe» (132).

«Amuac atcemaiten baititu arrainac, eta hegaztinac segadac» (60). Aga, aria eta amua dire arrantzako tresna baten zatiak. Amuan jartzen da xixarea. Amuaren muturtxoa egalduna ba-da, *garranga* deitzen diote toki batzuetan.

«Marinelac dembora eder denean, bela eguiten du, baita tormentan gueldi dago» (123). Saran orain ez da *tormenta* esaten, *kalerna* baiño.

«Arrantçaleac egotzten du amua urera beitarequin, cenbait iateco eta bazcarequin» (511).

«Çare, sasqui eta otharre eguiten haritcen cela» (23). *Zare* eskuan edo besoan eramaten dan zumitzez iotako ontzi bat da; orretarako ba-du elduleku bat. Zareari orain Saran *otarrea* esaten diote. *Saskia* bizkarrean eramatekoa da. Baztan aldean saski txikiari mea-saskia deitzen diote eta Saran *saski-ttikia*.

«Errementaldeguian, harotzaren suteguiian, hauscoac aice emaitetic guelditcen direnean» (325). Saran ez da orain *errementaldegi* esaten, *haroztegi* bai. Ezta ere *hauskoa*, *haskoa* baiño (geienetan beintzat).

«Maillu colpeec ingudea gogortcen duten beçala» (97).

«Su handia, iccatztobia, haice handiarequin, handitcenago» (463).

«Çur-guinac çura lantcen, eta appaintcen duenean» (441).

\*  
\* \* \*

Ara or zenbait argibide, Axularrek bere inguruko bizikeran zer ikusten zuen jakiteko. Beste ikasgai asko aipa ditu Axularrek GUERO liburuan. Luza genezake irakasaldi au erlo ortan; baiñan oraingoz aski direla iduri zait agertu ditudan erakuspenak.

### III

Axularrezaz berri batzuek aren garaiko argitapenen bidez dakizkigu; beste batzuek ordea erriaren oroimenetan eta esaundetan dauzkagu. Auezaz orain itz bi.

Axular jakintsu aunditzaz zeukaten noski bere erritarrak, oraindik bizi zalarik. Geroztikoak berriz Axularren jakiunda gizonetikakoa etzala ere esan digute: debruagandik ikasia zuela alegia, eta bere izena eta oroipena lenagoko esaunda eta ipuiakin uztartu dituzte.

## BARANDIARAN'GO JOXEMIEL

Ara zer ikasi nuen Ezpeletan orain dala 33 urte:

1) «Zugarramurdiko lezean hiru apezek ikasi omentzuten, arima baten truk, debruaren eskola: Don Juan, Ondarrabio eta Atxular omentzien.

«Eskolak ikasi zituztelarik, lezetik ateratu nahi izan zuten; baiñan arima bat debruaren eskuetan utzi behar zuten.

«Iuzkia zelarik nahi omentzuten atera.

«Baiñan (Zugarramurdin errana) debrua beti hekien zain baitzen, hek ezin atera lezetik: debrua galdezka omentzen beti.

«Atxular arrunt abila omentzen, eta bere xapela mintzaazten. Eta bein debrua solasean bertze aldera begira zagola, utzi xapelaen gain debruari errepustak ematea eta denak atera omentzien lezetik.

«Debrua oartu omentzen; baiñan urduko urrun goanak. Debruak burdin-gantzo bat tiratu omentzioten gibeletik eta Atxularri orpo-puska bat eta itzala kendu».

Ezpeletan ori bera beste era batean ere esan oi dute. Ara nola:

«Atxular eta bere lagunek egun batean asi omentzien ateratzen lezetik.

«Debruak galdatu omentzioten: *Orai nor gelditzen zizte hemen?*

«Aitzinekoak erran omentzion: *hartzak ene gibelegoa.*

«Bigarrenak aldiz: *hartzak ene gibelegoa.*

«Hirugarrena Atxular omentxen. Harek ere: *hartzak ene gibelegoa.*

«Atxularren gibeletik bere itzala baitzen, debrua Atxularren itzalarekin gelditu omentzen.

*(Ezpeleta-Beleskabetako etxeoandereak esana)*

2) «Behin gizon bat Zugarramurdiko leze inguruan behiketa omentzen.

«Jaun eder bat atera omentzitaion leze-bortan eta erran omentzion: *Sarako erretorari paketa ttipi hau eremaiten balin baduk, nik erakutsiko bire behiak non diren.*

«Beietz, eremaintziola gogotik.

«Orduan lezeko gizonak erran omentzion behiak non ziren.

«Gero bertzeak hartu paketa eta Atxularri ereman omentzion.

«Atxularrek galdatu omentzion gizonari nork emantzion paketa hura.

«Zugarramurdiko leze-bortan jaun eder batek emantziola erran omentzion gizonak.

«Atxularrek ideki omentzuen paketa eta gero erran omentzion gizonari, bixtan zen arbola hari estekatzeko barnean zauden sedazko gerriko gorriak eta, azken-itzuliak emaitan, laster eskapatzeko.

## AXULARREN ARGIA ETA ITZALA

«Gizonak Atxularren errana egin omentzuen, eta, bera eskapatzearekin, arbola errotik ateratu omentzen».

(*Andere berak esana*)

3) Zugarramurdin esan oi dute Axular Sarako leizean debruak eskolatua zala. Bera eta bere anaya (izenez *Mikelats*, leku batzuetan diotenez). Baiñan Axular jainkozkoa omentzan eta Mikelats debruzkoa. Ara auezaz zer dioten:

«Behin Atxular Saran erretor zagola, yiten zaio gizon eder bat eta, inguruko ogi-landai begiratuaz, erraten dio: *landa aberatsak, ogia ausarki dario; ba-ditut nik zaldi ederrak oriek yotzeko.*

«—*Bai nik ere zigorra, zaldi orien zuzentzeko, dio Atxularrek.*

«Gizon hura —Mikelats— gan zen.

«Atxularrek erraten dio bere neskatoari: *ikusten duzularik odei bat Larrungaiñean, gaztiga zaidazu.*

«Laster neskatoak ikusi zuen odei ttiki bat Larrun-gaiñean eta Atxularri errantzion.

«Atxular bereala gan zen Bulentegiko gaiñera eta han asi zen otoitz egiten kalerna urrunerazteko. Baiñan harria, bere herraots izigarriaikin, heldu zen Larrunen beitik. Orduan Atxularrek bere oinetako bat aidera jaurti omentzuen, eta kalerna urrundu. Etzen harririk erori Sarako landetan».

(*Zugarramurdiko andere Giltzuk esana, orain dala 32 urte*)

4) Atxular zahartu zen. Beldur zen hiltzea itzal gabe: ezin zitakean hala betiko zorionean sar. Bere itzala sagaran bakarrik agertze omentzitaion, meza ematen ari zenean. Sagaran hiltzea nahi zuen. Sakristauari erran zion: *hil nazak biar, sagarako ezkilak jotzean.*

—«*Ez, nik ez haut hilen.*»

—*Bai, hil behar nauk, bertzela ez nauk Jinkoaren gerizan izain.*

—*Bo, hilen haut.*

«Biharamunean sakristaua eman zen Atxularen gibeletik, hilen zuela. Asi zen sagarako ezkila; baiñan sakristaua etzen ausartzen Atxular jotzea.

«Gero Atxularrek eran zion: *biar hil behar nauk.*

—*Bo, hilen haut.*

«Baiñan bigarren egunean ere berdin: etzen ausartu, izitua omentzen.

«Atxularrek berriz: *biar hil behar nauk.*

«Hirugarren egunean sakristauak hil omentzuen Atxular, eta sarrerazi Zeruan».

(*Andere berak errana*)

## BARANDIARAN'GO JOXEMIEL

Axularri buruz dabiltzan ipuietan esaunda eta ikasgai asko ageri dire. Ara emen berezienak:

1. Debrua maisu.
2. Lezean eskola.
3. Arima, lanen sari.
4. Debrua beti galdez, beti beira.
5. Xapela mintzatzen.
6. Ikasleak iges.
7. Itzala ebatsi.
8. Orpoa kendu.
9. Debruaren emaitza.
10. Debruak agertzen beiak.
11. Gerriko madarikatua.
12. Gerrikoa biltzen, zuaiza galtzen.
13. Bi anai: ona eta gaiztoa.
14. Onen eta gaiztoen burruka.
15. Onaren azken-garaitzea.
16. Arima-itzal.
17. Arimaren bereganatzea edota ez galtzea.
18. Onaren geriztatzea, edo azken-zoriona lortzea.

Ikasgai orietarik batzuek (1, 2, 3, 6 eta 7 batik-bait) aski edatuak dabiltz aspalditik. Ageri dire Cerquandek bildu zituen ipuietan; baita Vinsonek eta Sorarrainek argitarazi zituztenetan ere. Auek diotenez, Axular Salamankan, debruaren arpean, eskolatua zan. Axular baiño leenago berriz Enrique de Villena egon omentzan arpe artan, debrua irakasle zuela. Onegandik iges egin omentzuan arek ere, bere itzala galduaz. Esaunda auek bazebiltzan beraz Euskalerritik urrun, Axularren garaian eta leenagotik ere. Amalagarren mendean aipatuak dire ikasgai orietako batzuek Euskalerriko ipuietan, batez ere 9, 10, 11 eta 12<sup>n</sup> lerroetan leen aipa ditugunak («Don Pedro de Barcelos'en *Livro dos Linhagens* dalazkoan).

Axular euskaldun aundienetakoa izan dala ez da esan bearrik. Bere irakasaldiak eta bere mintzaera zoragarriak ezagunak dira eta orien itzala menderen-mendetan atsegin izango dutela gure ondorengoak itxaro degu.

Ataun'en, 1974<sup>so</sup> Jorraillaren 15<sup>n</sup>

BARANDIARAN'GO JOXEMIEL